



## **EUSKARA IKASTEN ARI DIREN PASAITARRENTZAT DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUTEGIA.**

Pasaiako Udalak euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak emateko ondoko arau hauek onartu ditu:

### **Diru-laguntzen zenbatekoa:**

#### **▲ Ohiko ikastaroetarako**

- Langabetu eta ikasleei: matrikularen %50a ordainduko zaie.
- Gainerakoei: matrikularen %25a ordainduko zaie.

#### **▲ Barnetegiatarako**

- Langabetu eta ikasleei : matrikularen eta egonaldiaren %50a ordainduko zaie.
- Gainerakoei : matrikularen eta egonaldiaren %25a ordainduko zaie.

### **Bete beharreko baldintzak :**

1. Pasaian erroldatuta egotea.
2. Ikastaroan ematen diren ikastordu guztietatik gutxienez %85 jaso behar ditu.
3. Ikastaroa amaitzea.

### **Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

1. Langabetuek : gutxienez urtebeteko antzintasuna duen txartel eguneratua aurkeztu behar dute; horrelakorik izan ezean, ikastaroa hasi baino lehen atera behar dute langabezi txartela.
2. Ikasleek : ikasturteari dagokion ikasle txartela.
3. Euskaltegiaren txostena: ikaslearen aprobetxamendua (asistentzia) eta jarrera azaltzen dituena.
4. Udallerri honetan bizi direla egiaztatuko duen errolda ziurtagiria. Gutxienez urtebeteko antzintasuna eskatuko da.
5. Matrikularen ordainagiria.
6. NAREN fotokopia

**OHARRA : Dirulaguntza ikastaroa amaitu eta goian aipatu agiriak aurkezten direnean emango da.**

Eskabidea.pdf